



Trans
gida
gazteentzat
eta... hezkuntza
eragileentzat

ALDARTE

Gay, Lesbiana eta Transexualen Arretarako Zentroa

Berastegi kalea, 5-5.a

48001 Bilbao

Tel.: 944 237 296

aldarte@aldarte.org

www.aldarte.org

2012ko abuztua

Lege gordailua: Bi-1871/2012

Egilea: Inmaculada Mujika Flores

Diru laguntza:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA





Aurkibidea

Aurkezpena




**Transexualitateari buruz
kontuan hartu beharreko
zenbait ohar**



Elkarrizketak
Carlos
Ana



Ariketa praktikoak





Aurkezpena

Gazteak eta nerabeak transexualen errealitatera hurbiltzea da gida honen xedea. Transexualitatea zer den eta nola uler daitekeen azaltzen du, transexualen bizitza moldatzen duten alderdiak modu errazean agertuz.

Gida ez da, ordea, gaur egun transexualitateari buruz esku- ra dugun informazioaren bilketa soil bat. Aitzitik, benetako gizonezko eta emakumezko transexualen errealitate eta es- perientzietan oinarrituta dago, gidaren mamiaren zati garran- tzitsuetako bat baitira, hain zuzen ere, gazte transexualei egin dizkiegun elkarrizketak. Haiek interes eta ilusio handiz hartu dute parte.

Helburu nagusia gazteek gida irakurtzea eta transexualitateari buruzko hausnarketa egitea da. Halaber, hezkuntza arautuko edota aisialdiko profesionalentzako tresna bilakatzea nahi genuke. Horren harian, ariketa praktiko batzuk agertzen dira azken orrietan, gazte eta nerabeekin lantzeko, transexualita- tera hurbil daitezen. Ariketek benetako gertakizunak dituzte oinarri.

Gida hau baliagarria eta interesgarria izango zaizula espero dugu.

Gizakiok, eskuarki, generoa (gizonezkoa edo emakumezkoa) mekanikoki atxiki ohi diogu hurkoari, baita geure buruari ere: kalean goazela, norbait aurkezten digutenean, norbaitekin hizketan ari garenean..., berehala, oharkabean, norbait hori zein generotakoa den erabakitzen dugu, besteak beste, zuzentzen gatzazkionean femeninoa edo maskulinoa erabiltzeko. Eta, nola hartzen dugu erabakia? Bada, pertsona horren itxurari erreparatuta, begiratuta haren itxura bat ote datorren gure ustez gizon edo emakumea den horrekin: janzteko modua, iletsua den ala ez, bularra duen ala ez, nolako ahotsa duen, nolako genitalak dituen, etab. Segituan eransten diogu etiketa: gizona edo emakumea. Etiketa hori geure buruari ere eransten diogu pixkanaka: haziz goazen heinean, gure adimenak neskatila ala mutikotzat jotzen gaitu, eta geroago, neska edo mutiltzat.

Horrela bada, bestea gizonezko nahiz emakumezkotzat jotzerakoan, bistaratzen zaizkigun ezaugarriei egiten diegu kasu. Agerian dauden arren, ordea, ez dira nahitaez gure adimenaren egitura femenino edo maskulinoa baino adierazle fidagarriagoak. Alegia, arrunki, ez dugu kontuan hartzen norbaitek zakila izan arren bere burua emakumetzat jo dezakeenik; ezta, era berean, bagina bat duenak bere burua gizonezkotzat jo dezakeenik ere. Gainontzeko guztiak, pertsona horrek bere baitan zer sentitzen duen ez dakitenez, okertu egiten dira, eta pertsona horri pentsaraz diezaioke bera dela oker dagoena, eta ez alderantziz. ETA HORRETAN DATZA ARAZOA, hain zuzen ere, transexual gehienen nahia beraiek sentitzen duten generoarekin bat eginik bizitzea baita, eta beren ingurukoek (senideek, lagunek, eskolako kideek, irakasleek eta abar) halakotzat hartzea.

Transexualitateak gizarte gatazka ugari sortzen ditu, baita kezka handiak guraso eta irakasleengan. Beldurra eragiten du, bai transexualengan bai haien ingurukoengan, eta ia ez dago transexualitatea zer den eta errealitate horri nola heldu azaltzen duen informazio egokirik. Ondorengo lerrootan, transexualitatea azaleratzen hasten denean zer egin daitekeen azaldu nahi dugu.

Aurretik, on litzateke ulertzea pertsonon sexu nahiz genero identitatea ez dagoela gure genitaletan, gure adimenean baizik.

2

Transexualitateari buruz kontuan hartu beharreko zenbait ohar

Nork bere sexu identitatetzat edo sexu psikologikotzat duena eta nor horren sexu biologikoa bat ez datozenean dihardugu transexualitateaz. **TRANSEXUALITATEA FEMENINOA EDO MASKULINOA IZAN DAITEKE.** Transexualitate femeninoaz (hots, emakume transexualez) ari gara sexu fisikoa maskulinoa izaki sentitutako generoa femeninoa denean; eta transexualitate maskulinoaz (gizonezko transexualez, alegia), sexu fisikoa femeninoa izaki sentitutako generoa maskulinoa denean.

Transexualitatea ez da gaur eguneko fenomeno, oso antzinakoa da eta kultura askotan gertatu izan da. Transexual izena 1940an hasi ziren aurreneko erabiltzen, kontrako sexuaren parte izanik bizi nahi zuten pertsonak izendatzeko.

Gizon eta emakume transexualek zein sexurekin identifikatzen dituzten bere buruak, gizarteak eta legeak hura onar dezaten behar dute, eta horretarako, askok eta askok beste sexu horretara egokitzen dute beren gorputza, hormona tratamenduen eta ebakuntza kirurgikoen bidez. **PROZESU TRANSEXUALIZATZAILE** bati ekiten diote, horrenbestez; hau da, bigarren mailako sexu ezaugarriak “bere” sentitzen duten generoari egokitzeko prozesuari. Hormona tratamenduari ekiteko zein sexua berraxikitzeke ebakuntza egiteko nahia oso zabalduta dago transexualengan.

TRANSEXUALITATEA EZ DA, ORDEA, ADIMENAREN GAIXOTASUN BAT, eta transexualak ezin dira buru-gaixotzat hartu. Beraz, zure lagun batek esaten badizu bere burua gizonetzotzat duela nahiz eta gainerako guztiek emakumezkoa dela esan, edo alderantziz, ez ezazu sekula pentsa burutik eginda dagoenik. Zer generotzat duen bere burua, halakotzat trata ezazu; oso garrantzitsua da hori, baita haiek aukeratutako izenez deitzea, eta ez jaiotzean jarri ziotena erabiliz. Hasieran, beharbada, bitxia gertatuko zaizu, baina, denbora pasatu ahala, gauzarik ohikoena irudituko zaizu.

Transexualak transexual ez direnak bezalakoak dira, askotarikoak: zenbat transexual hainbat lan, ikasketa, gustu edo bizimodu, sexu orientazio (homosexual, lesbiana nahiz heterosexual) bai eta gizonetzko eta emakumezko izateko modu ere.

Inguruak atxikitakoaren kontrako generokoa zarelako sentipena oso goiz agertu ohi da, bizpahiru urterekin. Hasieran, ez da oso sentipen argia, ez da erraza izaten barne sentipen edo uste horretaz bete-betean jabetzea. **Oro har, sentipena ez da desagertzen, eta hoberena horri jaramon egitea izaten da. Ez da zertan pentsatu gauza bitxia denik, eta are gutxiago ezkutuan gorde beharreko zerbait denik, nahiz eta gurasoekin eztabaida edo liskar ugari izan hori dela eta.**


Oso garrantzitsua da senideen laguntza, hala nola irakasle eta ikaskideena ere. Nerabe transexualentzat lagunak beste edozeinentzat bezain garrantzitsuak dira, baina isolatzeko joera izaten dute, inork ulertuko ez dituen beldurrez eta, are okerrago, iseka egingo dieten beldurrez. Horrelako zerbait bizi duen norbait ezagutzen baduzu, saia zaitez laguntza ematen eta egoera ulertzen. Zure laguntasuna ezinbestekoa izango du prozesu osoan.

Bestalde, ez badakizu ziurtasun osoz zer zaren (gizonetzkoa edo emakumezkoa), eskatu laguntza: hitz egin ezazu uler zaitzakeen norbaitekin, eta bilatu orientabideak eta aholkua. Ez ezazu pentsa bitxia denik sexu identitateari buruzko zalantzak izatea; transexual ez diren askok ere izaten dituzte horrelako duda-mudak. ZALANTZAK IZATEA EZ DA GAUZA TXARRA, BAI, ORDEA, ZALANTZA HORIEK ISILPEAN GORDETZEA ETA INOREKIN EZ KOMENTATZEA. Ez duzu psikologo nahiz psikiarrik behar transexualitatea sendatzeko. Zer gertatzen ari zaizun modurik egokienean azalduko dizuten eta sortzen zaizkizun zalantzak argituko dizkizuten lagun edo profesionalak beharko dituzu.

Ez ezazu zure gorputza gutxiets edo gorrota sentitzen ari zarenaren kontrakoa delako. Orain sinesterik ez baduzu ere, zure gorputzak poztasun handiak emango dizkizu, eta, pixkanaka, gorputza zure sentipenetara makurtzen ikasiko duzu. Ispilu aurrean jarri, eta begira iezaiozu zeure gorputzari: irudika ezazu nola nahiko zenukeen izatea, eta has zaitez, poliki-poliki, lortu nahi duzun irudi horren arabera janzten, orrazten, apaintzen, eta abar.

Hormonak hartzeari edo ebakuntza egiteari buruzko erabaki oro zerorrek hartu behar duzu (ez familiak edo psikologoek, erabakiak hartzerakoan haien iritziak garrantzitsuak badira ere). Eska itzazu, momentu orotan, transexualizazioak dakartzan prozesuei buruzko argibideak.

Ez baztertu ikasketak, ezta jendearekin dituzun harremanak ere. Ikaskideek bizitza jasangaitz bihurtzen badizute, hitz egin irakasleekin. Zer gertatzen zaizun ulertzen dutenak bakarrik izan daitezke zure lagunak.





Elkarriketak

Carlos eta Ana (izen asmatuak) gizonezko eta emakumezko transexualak dira. Gazteak dira, eta, elkarriketak tarteko, interes handiz hartu dute parte gida honetan.

Zinez eskertzen diegu emandako laguntza.

Carlos

24 urte

Zuretzat, zer da transexualitatea?

Nire helburua –gizonezkoa izatea– lortzeko urrats bat: naizenaren eta nire sexua izatea nahi dudanaren arteko zubia da transexualitatea.

Noiz hasi zinen jabetzen zure gorputza eta sentitzen duzuna bat ez zetozenaz? Nolakoa da neska baten gorputzean bizi den mutila zarela sentitzea?

Begira, txikitan, ia nire adin bera zuen osabari galtzontziloak lapurtzen nizkion. Gelara joan, haiek jantzi, eta ispiluari begira mutil plantak egiten nituen. Oso txikia nintzela, elastikoak erabiltzen nituen, eta amak esaten zidan ezin nuela horrela ibili kolean, beste modu batera jantzi eta jokatu behar nuela, mutil jantzi haiek kendu eta neska jantzi behar nuela. Nik, ordea, ez nituen neska arropak atsegin, baina jantzi behar izaten nituen, amak hala agintzen zidan eta. Logelan mutil jantzen nintzenean, orduan bai erabateko zoriona.

Zenbat urterekin?

Bospasei urte nituela ohartu nintzen neure gorputza ez nuela gustuko. Ez nuela neska izan nahi esaten nion amari, baina hark halakorik ez esateko erantzuten zidan, gaizki jokutzen ari nintzela, eta, neska nintzenez, neska modura pentsatu behar nuela. Handik aurrera, ez nion berriro gaiari heldu etxean.

Harrezkero, ez zinen horretaz gehiago mintzatu, baina, zure baitan, neska barik mutila zinela sentitzen jarraitu zenuen; noiz hasi zinen gertatzen zitzaizunaz berriro hitz egiten?

Eskolako neskek erakartzen ninduten, eta ez nuen ulertzen nola zitekeen hori. Ikasgelako mutilei begiratzen nien, eta haietako bat izatea zer izan zitekeen galdetzen nion neure buruari: haiek bezalakoa izan nahi nuen! Zakila izan nahi nuen! Ez nuen neure gorputza maite, baina isildu egiten nintzen, etxekoek sarritan egiten baitzidaten errieta horrengatik: “gaizki zegoela...”, “ez nuela horrela pentsatzerik...”. Ez nuen berriro gaia atera, ez nuen horretaz gehiago hitz egin, baina 20 urte bete nituenean, atzera itzuli nintzen bertan behera utzitako hartara, eta aldaketa txikiak egiten hasi nintzen: ilea moztu nuen, eta gero eta motzagoa eramaten hasi nintzen. Bekainak apaintzeari utzi nion, baita makillajea jartzeari ere. Gero eta jantzi zabalagoak eramaten hasi nintzen, gorputza nabarmendu ez zedin. Hartara, nigan nuen alderdi maskulinoa deskubrituz joan nintzen pixkanaka, eta oso gustura, oso ongi sentitzen hasita nengoela konturatu nintzen.

Interneten aztertzen ibili nintzen, eta amari esan nion bazegoela ni bezala sentitzen zen jendea, transexualak zirela. Orduantxe esan nion amari sexu aldaketa egin nahi nuela; horrela bota nion, tupustean, eta lur eta zur geratu zen. Ez zuen ulertzen zer

ari nintzaion esaten, ez zen jabetzen esandakoaz; behin baino gehiagotan errepikatu nion, eta aitari ere esan nion; asko tematu nintzen bilera batera etor zitezen, pertsona transexualekin, eta, gogorik ez bazuten ere, nirekin etorri ziren. Nik sentitzen nuena sentitzea gauza normala zela ikus zezaten nahi nuen, ni neu bezala sentitzen zen jendea bazegoela eta ondo zegoela.

Bilera horretara baino ez ziren joan. Onuragarria izan zen haiek hara joatea, ikusmoldea zabaldu baitzitzaion, eta ulertu zuten nik sentitzen nuena ez zela hain apartekoa. Ondorioz, nire bizitzarekin nahi nuena egiteko esan zidaten, neure gorputza zela, eta neure erabakia. Jarrera hori hartu arren, hasieran ez zuten ulertzen zer gertatzen zitzaidan.

Denborak aurrera egin ahala, amarekin hitz egin izan dut, eta ehuneko ehunean onartzen ez banau ere, gutxienik ez du kexarik egiten eta ez zaio aberrazio bat iruditzen.

Jarrera horren eta hasierakoaren artean, gurasoen aldetik onarpen prozesua egon dela iruditzen zaizu?

Bai, hala uste dut; nire gurasoak ez dira oso itxiak, gazteak dira (40-50 urte), eta badakit denborarekin onartu egingo dutela; igarri ere egin dut, denbora pasatu ahala eta nik gorputzean eta jokamoldean aldaketak egin ahala. Aldaketok onartuz joan dira; izan ere, gurasoekin arropa erostera joaten naizenean, jada ez gara emakumeen aldera joaten; amak gizonezko jantziak oparitu eta dena egin dizkit. Amak onartu egiten du mutilen arropen aldera joatea, dagoeneko ez zait tematzen neska janzteko.

Gurasoek, denborarekin, onartu egiten dute; berehala onartu behar dutela pentsatzeko bezain geurekoiak ez dugu izan behar. Gurasoek ere euren beldurrak dituzte; batez ere, seme-alabek sufrituko ote duten beldurra. Horixe esaten zidan amak: “gizarteak baztertuko zaituen beldur naiz”, “min emango dizuten beldur”. Ulertu egin behar ditugu: gu nahasirik bagaude, are nahasiago egon daitezke haiek.

Beren denbora behar dute barneratu eta ulertzeko; prozesu motela da, eta nik beti gomendatzen dut astiro egiteko transexualizazio prozesua. Nire gurasoekin, hasieran, gatazka handia izan zen, “gure alaba mutil sentitzen da, zer da hori baina?” Uste dut gurasoek asko irakurri dutela gaiari buruz Interneten eta euren artean hitz egin dutela. Denbora eman behar zaie, eta gauzak kontatu: “hau gertatu zait”, “hau sentitzen dut...”; nik dena jakinarazi diet. Norberaren gurasoek transexualitatea ulertu eta onartzeko prozesu horretako partaide izan behar dugu. Kontua ez da esatea eta kito; denbora eman behar zaie. Esaterako, ez diezu esan behar: “begira, bihar bertan hormonak hartzen hasiko naiz”. Ez! Aldez aurretik aipatu behar diezu buruan darabilzula hormonak hartzearena, eta hori nolakoa izango den, nolako eraginak izango dituen, beste pertsona batzuekin hitz egin duzula... Nire gurasoek informatuta nagoela ikusi dute, prozesu bat izan dela, eta garrantzitsua da haiek horretaz jabetzea, prozesu bat dela eta ez bat bateko aldaketak.

Nire prozesua eta haiena paraleloak dira, eta nirea apur bat aurretik doa; neuk markatzen dut erritmoa, neuk daukat giderra eskuan. Astiro, eta haiei berri emanez. Hobe da horrela, eta ez denboraldi batez desagertu eta aldatuta itzuli. Horixe egin zuen nire senitarteko batek, denboraldi batez joan zen eta neska bilakatuta itzuli zen; itzelezko kolpea izan zen familiarentzat. Horren guztiaren berri eman behar zaie gurasoei, euren norberarenaren pareko prozesua dela ulertuta.

Nolakoa izan da prozesu hori, txikitan sentitzen zenuena ezkutatatu behar zenuenetik 20 urterekin agertu zenuen arte?

Armairuan gordeta, erabat. Denbora luzez, ukatu egin nuen; harreman sexualak izan nituen gizonezkoekin, eta ez zitzaidan gustatzen. Eta, bat batean, neska batekin izan nituen sexu harremanak, eta zoragarria izan zen hura, oso ondo sentitzen nintzen, gustura... eta hori, desberdina nintzelako eta gizartean egokitzen ez nintzelako sentimendua gora behera, neure burua inon ikusten ez nuela eta niretzako txokorik aurkitzen ez nuela. Oso zaila izan zen, bakarrik egon nintzen. Nola aipatuko nuen gertatzen ari zitzaidana? Nola esango nuen ikasgelako neska batek erakartzen ninduela. Oso zaila zen. Bakarrik eta isilean eraman behar izan nuen. Eta armairua zen nire babeslekua.

Familiatik kanpoko inguruetan, nolakoa izan zen Carlos modura agertzea?

Nagoen zentroko arduradunekin hasi nintzen, eta “ederto” esan zidaten, “ez dago arazorik”. Gero agindupekoei esan nien, eta ondoren, gertueneko kideei kontatu nien; genero disforia nuela adierazi nien, zerbait gertatzen ari zitzaidala eta erabaki batzuk hartu beharrean nengoela, eta horren berri eman nahi niela estimatzen nituelako, lagunak nituelako, eta azaldu nien ez nintzela ondo sentitzen neure gorputzarekin, barne borroka bizi nuela, gizon sentitzen nintzela eta modua bilatzen ari nintzela nire kanpoko itxurak barrukoarekin bat etor zedin.

Jendeak hasieran flipatu egiten zuen, baina kontatzen niena barneratzen zuten eta zera esaten zidaten, horrek zoriotsu egiten baninduen aurrera segitzeko. Horrela hasi nintzen gertueneko kideekin. Batzuek oraindik ez dakite, baina nik ez dudalako nahi jende horrek jakiterik. Apenas agurtzen dudan jendea da, eta haiek zer pentsatzen duten ez du eraginik nigan. Baina inporta zaidan jendeari esan egin diot apurka-apurka, eta izugarri ondo onartu dute. Neskalaunak “orain senargaia izango dut” esan zidan aipatu nionean. Ondo dago jende guztiaren babesa izatea. Babesa topatu dut etxetik kanpo.

Beste pertsona transexual batzuk ezagutzeak izugarri lagundu dit konturatzeko beste pertsona batzuek gauza bera jasan behar izan dutela, zalanza eta kezka berak izan dituztela eta hala ere onik atera direla. Horrek lagundu egin dit sinesten sentitzen dunarekin bat datorren kanpoko itxura lor dezakedala.

Laguntasun hori edukitzeak lasaitu egin nau. Lehengusu-lehengusinei esan nien, eta flipe itzela izan zen, baina izan nahi nuena izateko esan zidaten. Horrekin bakarrik, pozez zoratzen egon nintzen. Amamak, aitaren aldekoak, orain gizonezko iloba bat gehiago zuela esan zidan. Baina amaren aldetiko amamarentzat oso latza da oraindik ere. Harentzat gauza hauek ez dira posible. Oso pertsona elizkoia da eta 75 urte ditu. Beti neskatzat hartuko nauela esan dit, baina nire itxaropena da aldaketa fisikoak begi bistakoak direnean, inertziatz, gizon modura hartuko nauela, ezer behartu gabe.

Urte hauetan, aurrera egin al du gizarteak transexualitateari dagokionez?

Bai, baietz uste dut, toleranteagoak dira, izugarri flipatzen dute, baina ondo ari da onartzen; gazteenek naturalagotzat jotzen dute transexualitatea: zure zoriona jokoan bada, haren bila joan behar duzu.

Eskizofrenia diagnostikatua duzu, nola eragin dio horrek zure transexualitateari?

Jende askok esan dit gaixotasunagatik sentitzen naizela gizon, horrek bitan banaturik sentiarazten zaituelako. Niretzat gogorragoa izan da, gaixotasunak ez duelako zerikusirik nire izaera sexualarekin; ni nola sentitzen naizen, neure burua nola ikusten dudana, horrek ez du loturarik nire gaixotasunarekin.

Gaixotasuna botika eta terapiaren bidez kontrolatzen dut, eta ez du batere loturarik gizon izateko nire gogoarekin. Demostratu egin diet ingurukoei sentitzen dudana hori nahi dudala, eta su eta gar defendatu dut ni naizena. Demostratu egin diet ez direla pilulak, ez dela gaixotasuna, neu naizela, Carlos.

Hartuko zaituen endokrinoak arazorik jarri al dizu zure diagnostikoa dela eta?

Ez, ziurtagiri psikologiko bat baino ez dit eskatu, gaixotasunak transexualitatearekin zerikusirik ez duela ziurtatzeko.

Kostatu al zaizu ziurtagiria egingo dizun norbait topatzea?

Psikiatra bati esan nion lehendabizi, eta gaia ez zuela kontrolatzen esan zidan, nahiago zuela horretan ez sartu: “nik eskizofrenia tratatzen dut, gainerakoa zure kontua da”. Beste psikologo batek esan zidan ez zuela gaia ezagutzen eta ezin zidala aholkurik eman, beste nonbait bilatzeko laguntza. Eta horregatik heldu nintzen hona, ALDARera.

Nola ikusten duzu zure etorkizuna?

Baikorra naiz. Ondo ikusten dut. Bide onetik doaz egiten ari naizen aldaketak. Baita nire itxura eta gizarte bizitza ere. Uste dut dena ondo aterako zaidala. Ebakuntza egin eta gizon modura zoriontsu izateko falta ditudan egunak zenbatzen hasiko naiz. Eta orain, bikotekidea dudanez...

Eta ebakuntza?

Bilbora etortzeko asmoa dut, hemen erroldatu, Gurutzetako Genero Unitatera sartu, eta han egin diezazkideatela ebakuntzak.

ANA

23 urte

Zuretzat, zer da transexualitatea?

Zeurea sentitzen ez duzun sexu batez jaiotzea; hau da, ez zarela..., zure sexu biologikoa eta zure sentimendua edo desira bat ez etortzea. Bi bizitza paralelo dira.

Noiz hasi zinen jabetzen ez zenuela bat egiten zure sexu biologikoarekin?

Hamasei edo hamazazpi urterekin. Baina, ondo pentsatuta, lehenagotik datorren kontua dela uste dut. Hamar-hamabi urterekin hasi nintzen pentsatzen hau ez zela nire tokia, ez nengoela konforme gizon izatearekin, ni zera nintzela... tira, hasieran ez nuen esaten emakumezkoa nintzela, ez bada gizon ez nintzela sentitzen; zalantzak nituen. Homosexuala izango al naiz? Ez, berehala baztertu nuen hori. Hamabost urterekin informazioa biltzen hasi nintzen, baina ez nuen transexuala nintzelako kontzientziarik. Halako batean, zera erabaki nuen: honaino heldu naiz!, eta ALDARTERA etorri nintzen.

Lehenagotik dator, eta, pentsatzen baduzu, konturatzen zara hori sentitzen zenuela jada 4 edo 5 urterekin... Zeharka nolabait, ez arrazoituta, adin horretan ez duzulako ezaguerarik, baina, atzera begira, konturatu naiz txikitan errazagoa zitzaidala emakumeekin ibiltzea, lagunak egitea eta.

Transexualtzat duzu zeure burua?

Ez. Ez dut horrelakotzat definitzen, emakumea naizela badakidalako. Transexualitatea esaten diote, eta badakit prozesu hori pasatu behar dudala, baina, barrutik, ni emakume sentitzen naiz. Kaxa bat zabaldu eta barruan emakume bat agertzen da, horixe. Dudan gorputza gorabehera, ez naiz gizonezko bat.

Emakume bat zara...

Bai. Baina ez nuen kanporatzen, besteez zer esango zuten. Ezin nuen. Neurri batean, askotan zalantzak nituelako, baina, esaten ez baduzu, sekula ez duzu seguru jakingo, eta ALDARTEn horretaz hitz egin nuenean, orduan konturatu nintzen zer nintzen... Harrezkero lasaiago hausnartzen dut zer gertatzen zaidan.

Nik ez dut sekula depresiorik izan hori dela eta, uste dudalako bizitza bizi egin behar dela, baina egia da oso gaztetatik ez zaidala neure sexua gustatu. Sekula ez zait gustatu gizonezko gorputza izatea.

Aukerarik izan duzu sentitzen zenuenaz hitz egiteko?

Aukerak, bai; etxean, nolabait ikusarazi dut, gustatzen zitzaidan eta jantzi nahi nuen lentzeria zela eta. Amari aipatu nion, baina gaia aparkatu egin zuen. Psikologo batengana joan nintzen, eta normala zela esan zidan, fetitxe moduko bat, baina ez zidan azaldu transexualitatea izan ote zitekeen edo zer, ez zion gaiari heldu.

Etxean, emakumezko arropa erabiltzen dut, hori naizelako. Aitak, kontuaren berri duenetik, arraro begiratzen dit, eta ez du gaia aipatzen.

Beraz, inork ez zizun ezer esaten...

Beti ezkutatu izan dut, amak atera zuen arte. Amari ez zaio gustatzen, ez du ulertzen, baina “onartu” egiten du, komatxo artean; izan ere, zein izen hartuko dudan eztabaidatu dugu, eta azkenean berak irabazi du... Berak jarri dit orain dudan izena, birbataiatu egin nau. Ulertu egin behar ditugu gurasoak; amak esan izan dit: “zuk sufritu egiten duzu, baina nik ere”. Ilusioa egin dio orain dudan izena berak jartzea, eta niri ez zait izen txarra iruditzen. Ez dago arazorik.

Ulertzen duzu zure amak, mutiko bat izan duela uste baitu, mutikoa barik neskatila zarela onartzeko sufritzea?

Bai. Izan ere, haurdunaldian, neskatoa nintzela pentsatzen zuen, zein sexutakoa nintzen ez zelako ikusten. Ordurako, nabarmentzen hasita!!! Eta tira, mutiko jaio nintzen! Amak neska nintzela uste zuen, eta bat batean mutiko jaio nintzen; 22 urtez pentsatu izan dute mutila nintzela, eta halako batean, ezetz esaten diet, neska naizela: bada shock bat hartzeko modukoa!

Izatez, berak sinetsi du mutila nintzela, ni betidanik izan naizelako emakumezkoa, eta lehengoan, horretan pentsatzen nengoela... begira, etxekoek inoiz esan izan didate nire txikitako grazia zela neskatila baten moduan ibiltzea nintzela, neskatila baten modura egiten nuela korrika, keinuak ere halakoak nituela..., hots, beti izan ditudala neska baten manerak.

Amak, behintzat, horretaz hitz egiten du; aitak, berriz, ez... Atzo bertan, udako lanarekin lortuko dudan dirua depilaziorako zela esan nion, bizarra eta bularreko ileak kentzeko, emakume batek ez duelako horrelakorik, eta, hara!, hantxe geratu zen, ezertxo ere esan gabe.

Azken boladan, naturaltasun handiagoaz bizi dute etxean; ez didate Ana esaten, ez dute nirekin femeninoa erabiltzen, ze amak esaten du Gurutzetako Genero Unitatean egon arte ezingo duela nirekin femeninoa erabili.

Familiatz aparte, beste norbaiti kontatu diozu?

Bai, nire lagun minenari; neska da, eta oso ondo hartu du. Onartu egin du, eta gertatzen zaidanaz, sentitzen dudana hitz egiten dugu. Esan izan dit jendeari esateak

kezkutzen duela, eta nik esan diot nahi duenari kontatzeko; hori bai, abisatzeko nori esaten dion, ni neu pentsatzen ari bainaiz nori kontatu. Mutil lagun bati esan nahi diot, eta jakin behar dut nire lagun min horrek noiz kontatzen duen, neuk kontatzeko berehala. Lagun dudan mutil horri neuk esan nahi diot. Gertuko jendeari neuk esan nahi diot, eta ez da di-dako kontua, esateak kosta egiten du.

Zoriontsuago bizi zara zer gertatzen zaizun badakizularik eta lagun minari eta gurasoei esan ondoren?

Zoriontsu, ez! Ez naiz ehuneko ehunean zoriontsua, horretarako emakume izan beharko nukeelako besteentzat ere, emakume modura ikusi beharko nindukete. Ni, orain, ez naute emakume modura ikusten. Lasaitzen ote nauen? Bai! Baina sufritu egiten dut ez nautelako ikusten benetan naizen modura, eta hori, ez sufritzen eta bizitza ahalik eta gehien gozatzen saiatuta ere.

Zoriontsua? Zerbait falta dut oraindik guztiz zoriontsua izateko. Argi dago orain bizi dudan egoera duela urte batzuetakoa baino hobea dela, garrantzitsua da nire familiak jakitea... Lasaitu handia da, eta errazago izan naiteke ni neu. Eta naizen bezalakoagoa agertzen naiz nire lagun minekin... Eta apurka-apurka, itxuraldatzen joango naizen neurrian, fisikoki emakume itxura handiagoa hartzen, zorion maila handiagoa lortuko dut.

Garrantzitsua da besteek ni emakume modura tratatzea: beste emakume bat gehiago; izugarrizko zoriona da hori.

Sentitzen zinen moduan sentitzen zinela, zer moduzkoa izan zen bikote-harreman bat izatea, duela hiru urte?

Zail samarra, bai? Nik ez nion ezer esan; neskak bazekien lentzeria erabiltzen nuela, eta uste dut uneren batean iradoki edo egin niola emakume izan nahiko nukeela. Hausketaren arrazoia ez zen nire transexualitatea izan, delegatze bat izan daiteke, konfiantza falta ere egon zen, hirugarren bat sartu zelako tartean. Handik denbora batera, berriro lotu ginen, baina, harremanak iraun zituen sei hilabete horietan, barne leherketa bat izan nuen, eta ni neu zabaltzen hasi nintzen, neure transexualitatea onartzen; ate joka nuen, eta zabaldu egin nion, eta gero ezin atea itxi, eta berriro ekin genion, baina ez zen gauza bera izan. Gertatu zenagatik eta nik probatu egin nahi nuelako.

Ez daukat argi lesbiana, heterosexuala ala bisexuala naizen. Emakumezkoekin egon izan naiz, eta harreman horretan, buruan, ni emakumezkoa nintzen; gustuko nuen Sofia (asmatutako izena), eta emakume transexuala naizen aldetik neukan harekin harremana, baina ni gizon modura hezi naute, eta beraz, nigan normala zen harreman hura; baliteke Sofiarekikoa adiskidetasuna baino ez izatea, eta nahasturik egon izana. Nolanahi ere, izango dut denbora nire joera sexuala zein den egiaztatzeko.



Eskolan edo institutuan transexualitateaz hitz egin izan balizute, zure bizitza aldatuko zen?

Bai, seguruen. Gai hori hezkuntzan sartuta balego eta azaldu egingo balitz, itzela litzateke!

Zertan aldatuko zen zure prozesua?

Bada, ikastetxean horretaz hitz egiten badizute, beste bide batzuk zabaltzen zaizkizu, gertatzen zaizuna aipatzen dizute, azaldu egiten dizute. Eta gainera, hori bizi izan duen jendearen esperientziak kontatzen badizkizute, hori bai itzela litzatekeela! Orientatzaileengana joan zintezke eta gertatzen ari zaizuna kontatu, eta haiek norbaitekin harremanetan jarri eta gidatu egingo zintuzkete, eta 10 urterekin dituzun zalantzak, agian, argitu egingo zenituzke, edo ez! Behar bada, 15 urterekin oraindik ere izango dituzu zalantzak, baina jakin, badakizu, eta konfiantza daukazu, ez da ezer gertatzen eta.

Begira, erlijio irakasle bat izan nuen, eta emakume hark ez zuen erlijioa irakasten, eskolan sexualitatearekin lotutako gauzak, gaurkotasuneko gaiak aipatzen zituen, eta hantxe hasi nintzen nire prozesuaren gainean gehiago pentsatzen, irakasle hari esker, jendearen esperientziak kontatzen zituelako, ordura arte landu gabe genituen kontuak. Transexualitateaz ez zuen hitz egin; agian, galdetu izan bagenio aipatuko zuen zerbait, baina, askotan, galdetzeko beldur izaten ginen.

ALDARTEn horretaz jarduten dudanetik, erosoago, lasaiago sentitzen naiz. Hasieratik landu beharko litzateke, eta ez hitzaldi bat eta kito, ez, modu jarrian, errealtate hori aipatuz.

Nola ikusten duzu zure etorkizuna?

Emakume modura. Zuzenbidea ikasiko dut. Ikasketak amaitu eta abokatua izango naiz, eta nire burua ikusten dut gauza hauez abokatu modura hitz egiten, modu juridikoan. Nire pasioa musika da, eta horretatik bizi nahiko nuke, musika taldeen ordezkari izan nahi nuke.

Eta ikastetxeetara joan nahiko nuke neska-mutilei transexualitateaz hitz egitera, nik pasatu behar izan ez dudana pasa ez dezaten.

Emakume arrunt baten modura ikusten dut neure burua. Ez dut uste ezkonduko naizenik. Umeak eduki nahiko nituzke, ama ikusten dut neure burua. Horrek adoptatzea eta hori dena eskatzen du. Amatxo baten modura ikusten dut neure burua.

Lehendabizi neu naiz; ikasi eta fisikoki emakume itxura izateko prozesua amaitu.





Ariketa praktikoak

Elkarrizketen eta kontaketa-aren gainean hausnartzeko atal honetan ariketa didaktiko batzuk aurkituko dituzu. Hauek egitera animatzen zaitugu. Gainera ikasgelan modu errezean dinamizatzeko planteatuta daude.

1 • Carlosen elkarrizketa

2 • Anaren elkarrizketa

3 • Zu elkarrizketatzaile

4 • Antonen kontakizuna

1 • Carlosen elkarrizketa

- 1 • Nola deskribatuko zenuke Carlos?
- 2 • Zer da gizonezko transexualitatea edo gizon transexuala izatea?
- 3 • Haserre egiten al zioten Carlosi, txikitan, mutiko jantzi nahi zuelako?
Zer deritzozu Carlosen gurasoen jarrerari, Carlos txikia zenean?
- 4 • Zer oztopo gehigarri gainditu behar izan du Carlosek gizon transexuala dela sinets dezaten?
- 5 • Zer da Gurutzetako Genero Unitatea?
- 6 • Bestelako zer galdera egingo zenioke Carlosi?

2 • Entrevista a Ana

- 1 • Anaren historia labur dezakezu?
- 2 • Zer da emakumezko transexualitatea edo emakume transexuala izatea?
- 3 • Pertsona transexualizat du Anak bere burua?
- 4 • Zure ikastetxean transexualitateaz hitz egin dezaten nahiko zenuke, Anak dioen bezala?
- 5 • Zer da prozesu transexualizatzaile bat?
- 6 • Bestelako zer galdera egingo zenioke Anari?

3 • Tú entrevistas

Binaka egiteko ariketa hau proposatzen dizuegu:

Pertsona transexual bati balizko elkarrizketa egitea. Batek elkarrizketatzailearena egingo du (horretarako, galderak prestatu; Carlos eta Anaren elkarrizketak eredu gisa har ditzakezue), eta bestea elkarrizketatua izango da, pertsona transexualarena egi-
nez eta haren larruan sartuta (Carlos zein Ana izan daiteke).

4 • Relato de Antón

*Anton dut izena, 39 urte ditut, eta barne borroka luze baten ondoren, azkenik, biolo-
gikoki suertatu zaidan sexuaren orde z benetan dagokidana berratzikitze prozesuari
ekitea erabaki dut.*

*Hautzaroa, niretzat, garai zoriontsua izan zen; mutiko sentitzen nintzen, mutikoek
bezala jantzi eta jolasten nuen, eta, galdetzen zidatenean, ez nuen inolako arazorik
mutikoa nintzela agertzeko.*

Harik eta garapenaren adina etorri zen arte, eta guztiz bestelako errealitate bat ikusten hasi nintzen, non besteek ez ninduten begiztatzen ni benetan sentitzen nintzen moduan, eta ustez zegokidan rol femininora egokitzen saiatzen hasi nintzen. Gatazka handiena nerabezaroan hasi zen, nire sexu bereko pertsonak erakartzen nindutela konturatzean, eta neure buruari galdetzen nion ea gizon izateko gogoak ez ote zuen lotura izango emakumeekiko erakarpen sexualarekin (geroago konturatu nintzen zein erratuta nengoen).

Harremanak izan nituen gizonezkoekin, bideratzen saiatzeko, baina ez ninduten asebetetzen, sentitzen bainuen nire gorputza gizonezko bati plazera emateko diseinaturik egon arren, nire gogoa eta bihotza emakume batzentzat zirela. Ondorioa atera nuen lesbiana nintzela, eta emakumeekin harremanak izaten hasi nintzen, pentsatuz azkenik topatua nuela nire tokia; baina zer edo zerk huts egiten zuen, orduan guztiz kontrakoa gertatu baitzitzaidan; emakume bat nuen besoetan, horixe zen nahi nuena, eta, hala ere, nire harreman sexuak ez zuten funtzionatzen.

Orduan konturatu nintzen nire barrukoa benetan eman ahal izateko beharrezkoa nuela emakume horrek ni gizon modura ikusi eta desiratzea.

Orain argi daukat gizon transexual-heterosexuala naizela, eta, akabuan, nire bizitza neuk gobernatzen dudala sentitzen dut. Hemendik hilabete gutxitara hormonazioarekin hasiko naiz, eta bilakaera gogorra izango dela jakin arren, ez dut uste urte hauetan pairatu izan dudana tortura psikologikoa baino txarragoa izango denik (suerte handia dut, senitarteko eta adiskideen laguntza baitut).

Damu bakarra dut, urrats hau lehenago egin ez izana eta bizitza alferri egokitu nahian xahutu izana.

Beraz, orain egoera berean egon daitezkeen neska eta mutil guztiei zera esango nieke, euren senari eusteko eta lehenbailehen profesionalen esku jartzeko, prozesu horretan aholkatu eta lagunduko baitituzte.

Genero disforia izeneko anomalia batez jaiotzen gara, eta denborak ez du xirmi-xarma desagerrarazten, kontrakoa baizik, gero eta handiagoa da frustrazioa; beraz, gauzak bere tokian zenbat eta lehenago jarri, orduan eta hobeto. Zorionez, gurasoen arazo hauen kontzientzia handiagoa dute gaur egun.

Nire kasuan, nire seinaleak irakurtzen jakin izan balute, sufrimendu handia aurreztuko zidaten. Umea izaki aratza da, den bezala agertzen da, aurreiritzi eta tolesik gabe, erabateko egia da, eta hortxe hasi behar da lanean, txikitatik eskaintzen prebentzioa eta tratamendua.

Kemen osoz pausoa ematen ausartzen diren gazte horiek guztiek inbidia osasungarria sorrarazten didate, bizitza luzea izango baitute pisu hori gabe disfrutatzeko.

Berrogei urte betetzeko zorian nagoela, nerabe baten ilusio bera dut, bizitzan lehen aldiz.

Gizarteari, oro har, zera esango nioke, saiatzeko une batez bestearen larruan sartzen, ispilura begiratu eta bere nortasuna ezagutzen ez duen horren larruan, batere ez dagokion rola jokatu beharra duen horren larruan, gizartearen aurrean dena bere tokian dagoelako itxura egin behar duen horren larruan.

Inork ezin du irudikatu zenbaterainoko sufrimendu eta frustrazioa sortzen digun horrek, baita bizitzarekiko interesa galarazteraino ere.

Beraz, atea ez ixteko eskatuko nieke, edo, behintzat, trabarik ez jartzeko, bizitzak berak nahikoa jartzen baitigu. Gure gurari bakarria bizimodu normala izatea da, bere poz eta penekin, gu ez baikara bereziak.

Gogoetarako galderak

- **Laburtuko al duzu esaldi gutxitan Antonek esandakoa?**
- **Transexualik egon daiteke zure ikastetxean?**
- **Nerabezaroan, emakumezkoek erakartzen zuten Anton? Emakumezko gorputza du Antonek, beraz, lesbiana da?**
- **Zer da transfobia?**
- **Homosexualitatea, lesbianismoa eta transexualitatea bereizten jakingo zenuke?**
- **Trabestismoa eta transexualitatea bereizten jakingo zenuke?**

